



**11/2003 GOMENDIOA, APIRILAREN 15EKOA, BILBOKO UDALARI EGINA, IBILGAILU BATEN JABEARI EZARRI ZION ZIGORRA BALIORIK GABE UTZ DEZAN. TRAFIKOKO ARAU-HAUSTE BATENGATIK BERE AUTOA SALATU ZUTENEAN, GIDARIA IDENTIFIKATU EZ ZUELAKO EZARRI ZION ZIGORRA UDALAK.**

**Aurrekariak**

1. (...) jaunak erakunde honetara jo zuen 2002ko irailean, gure bitartekotza eskatzeko. Izan ere, Bilboko udalak zigorra ezarri zion (...) zenbakiko zigor-prozeduran, ez baitzuen adierazi nor gidatzen ari zen bere Peugeot ibilgailua - (...) matrikuladuna- beste zigor-prozedura batean salatutako egintzak gertatu zirenean. Beste zigor-prozedura hori -(...) zenbakikoa- trafiko alorrekoa zen eta udal berberak bideratu zuen interesdunaren kontra, salatutako ibilgailuaren jabea zelako.

Kexagileak kexan zioenez, udalari jakinarazi zizkion, hark emandako epean, (...) zenbakiko prozeduran salatutako egintzak gertatu zirenean bere ibilgailuaren gidari izan zitezkeen bi pertsonen datuak, baita haien helbideak ere. Hala ere, udalak beste zigor-prozedura bat hasi zuen beraren kontra -(...) zenbakikoa-, gidaria identifikatzeko betebeharra ez betetzeagatik, eta horren ondorioz, isuna ipini zion eta bertan behera utzi zuen (...) zenbakiko prozedura; dena den, udalak ez zuen ezer egin kexagileak eskuratu zion informazioa egiaztatzeko.

Halaber, interesdunak adierazi zigunez, udalak isuna betearazteko izapideak hasi zituen, baina isun horren kontra berak jarri zuen berraztertze errekurtsoa espresuki ebatzi gabe.

2. Kexa bideratzeko asmoz egin genion informazio-eskeari erantzunez, Bilboko udalak Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuaren zinegotzi delegatuaren txosten bat igorri zigun. Txosten horretan, honako hau adierazten da (...) zenbakiko zigor-prozedura hasiarazi zuen salaketaz -aipatu dugunez, prozedura horren ondorioz sortu zen bestea, kexa hau eragin duena-: *"se dio por notificada el día 05-03-02, fecha en la que el titular del vehículo, D. (...), presenta escrito mediante el cual identifica a dos posibles conductores, uno de ellos domiciliado en Bélgica"*. Hortaz, jarraian ondorio hau atera zen: *"dado lo expuesto, a tenor de lo establecido en la Ley 19/2001, de 19 de diciembre, de reforma del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial, se procede a la anulación de la denuncia nº (...)* y se



*formula la denuncia nº (...), por no facilitar el titular del vehículo la filiación del responsable de la infracción".*

Zinegotzi delegatuaren txostenak baieztatu zuen kexagileak jarritako berraztertze-errekurtsoa espresuki ebatzi gabe zegoela, egiaz. Alabaina, ez zuen ezer adierazi kexagileari jarritako isuna betearazteko prozeduraren hasieraz.

Txosten horrekin batera, udalak bi zigor-prozedurei zegozkien administrazio-espedienteen kopiak igorri zizkigun ( (...) zenbakikoa, kexa sortarazi zuena, eta (...) zenbakikoa, hura eragin zuena).

3. Bi administrazio-espedienteak aztertu ondoren, honako egintza hauek egiaztatu ahal izan genituen:

- 2002ko otsailaren 27an, kexagileak (...) zenbakiko zigor-prozedurari zegokion salaketaren jakinarazpena jaso zuen bere etxean. Hauxe zioen: *"en el supuesto de que en el momento de la infracción no fuera el conductor del vehículo, se le requiere para que en el plazo de quince días, a partir del recibo de esta notificación, identifique ante este Ayuntamiento (Servicio de Seguridad Ciudadana) al conductor del vehículo responsable de la infracción (NOMBRE Y DOMICILIO COMPLETO), apercibiéndole de que si incumple esta obligación, sin causa justificada, será sancionado pecuniariamente como autor de falta grave".*

- Martxoaren 5ean, interesdunak idazki bat aurkeztu zuen 8. Barrutiko Udal Zentroan, eta honela identifikatu zituen ibilgailuaren gidari izan zitezkeen pertsonak:

*" • D. (...), con DNI número (...) y domiciliado en la c./ (...), número (...), (... )Bilbao.*

*• Dña. (...), carta de identidad número (...) y domiciliada en un chalet sito en la c./(...), número (...)Bélgica".*

- Inon ez da jasota agertzen udalak inolako jarduerarik burutu zuenik honako hau jakiteko: interesdunak -egin zioten eskariari erantzunez- identifikatutako bi pertsonetatik zeinek gidatzen zuen ibilgailua salatutako gertakariak jazo zirenean.



- Martxoaren 13an, (...) zenbakiko zigor-espedita hasi zen kexagilearen kontra -kexa hau sortarazi zuena-, (...) zenbakiko prozeduran ibilgailuaren gidaria nor zen adierazi ez zuelako.
  
  - Prozedura berri hori hasi zela jakinarazi zitzaion interesdunari; horrek, 2002ko martxoaren 25ean, alegazio-idazki bat aurkeztu zuen 8. Barrutiko Udal Zentroan bertan, eta behin eta berriz adierazi zuen berak modu egokian bete zuela bere betebeharra, alegia, (...) zenbakiko prozeduran, ibilgailuaren gidaria identifikatzea.
  
  - 2002ko maiatzaren 15ean, (...) zenbakiko zigor-prozeduraren ebazpen-proposamena jakinarazi zitzaion kexagileari. Proposamen horretan, udalak onartu zuen (...) zenbakiko zigor-prozeduran salatutako ibilgailuaren jabeak adierazi zuela zeintzuk izan zitezkeen gidariak (*"el titular del vehículo comunica filiación de dos posibles conductores"*), epe barruan adierazi ere; ez zituen onartu, ordea, interesdunak salaketaren kontra egindako alegazioak. Hara zergatik: *"al haber resultado probado -hala dio behintzat- que el responsable de la infracción es D. (...), en su calidad de titular del vehículo, el cual debe conocer en todo momento la identidad de quien lo conduce, debido al riesgo potencial que la utilización de un automóvil entraña para la vida, salud e integridad de las personas"*.
  
  - Ekainaren 13an jakinarazi zitzaion interesdunari zein zigor jarri zioten prozedura horretan.
  
  - Hil beraren 18an, kexagileak berraztertzeke errekurtoa ipini zuen zigor horren kontra. Inon ez da jasota agertzen errekurto hori berariaz ebatzi zenik.
4. Azaldutako egintzak kontuan harturik, erakunde honen ustez, kexagileak benetan bete zuen, prozedurazko tramite egokian, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak 72.3 artikuluan ezarri zion betebeharra; haatik, udalak ez zion jaramonik egin hark egindako identifikazioari, eta zigor-prozedura hasi zuen haren aurka, aipatutako betebeharra ez betetzeagatik, hura egiaz bete ez balu bezala. Udalarari gure iritzia helarazi genion, zigorraren kontra interesdunak jarritako berraztertzeke errekurtoa onar zezala eskatu genion, eta, azkenik, gogorarazi genion ezin zuela zigor hura derrigorrez betearazi, harik eta errekurtoa berariaz ebatzi eta zigorra irmoa izan arte.
  
  5. Gure balorazioari erantzunez, udalak beste txosten bat igorri zigun. Hauxe zioen: indarreko legeria kontuan izanik, baita Bilboko Auzitarako 3. Epaitegiak 213/01 Epaian azaldutako irizpidea ere -epai horretan kexa honen antzeko kasu



bat aztertu baitzen, udalaren esanean-, ez zituela onartu (...) jaunaren alegazioak eta, hortaz, zegokion zigorra ezarri ziola.

Txostenari esker ostera egiaztatu genuen berraztertzeko errekurtsua berariaz ebatzi gabe zegoela, baina, berriz ere, udalak saihestu egiten zuen zigorra derrigorrez betearazteaz gure balorazioan adierazitakoaren gainean bere iritzia ematea.

6. Geroago, kexagileak jakinarazi digu udalak ebatzi duela, azkenean, berraztertzeko errekurtsua. Ez omen du onartu, arrazoi honetan oinarrituz - bidali digun kopian adierazitakoaren arabera-: *"se considera que el solo preguntar, aun cuando sea de forma insistente e indicar únicamente que ha realizado diligencias de averiguación sin detallar más sobre ellas, no le exime de su obligación legal, incidiéndose en el hecho de que el art. 72.3 citado, obliga al titular del vehículo a conocer en todo momento la identidad de quién lo conduce"*.

### Gogoetak

1. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, 72.3 artikuluan, hutsegite larritzat jotzen du honako hau: ibilgailu bat erabiliz trafikoko arau bat ustez hausten denean, ibilgailuaren titularrak ez identifikatzea -horretara behartuta baitago- nork gidatzen zuen bere ibilgailua arau-haustea gertatu zenean. Honela zehazten du betebeharrak, abenduaren 19ko 19/2001 Legeak eragindako aldaketaren ondoren: *"El titular del vehículo, debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al conductor responsable de la infracción y si incumpliere esta obligación en el trámite procedimental oportuno sin causa justificada, será sancionado pecuniariamente como autor de falta grave, cuya sanción se impondrá en su máxima cuantía. En los mismos términos responderá el titular del vehículo cuando no sea posible notificar la denuncia al conductor que aquel identifique"*.

Agindu horren hasierako idazketa Konstituzio Auzitegiak interpretatu zuen, eta konstituzionaltzat jo zuen abenduaren 21eko 197/1995 Epaian. Auzitegiak honela interpretatu zuen artikulua hura epai horretan: *"configura un deber de colaboración del titular de un vehículo con la Administración (...) que resulta inherente al hecho de ser propietario, lo cual comporta (...) ciertas obligaciones, entre ellas la de saber, dentro de lo razonablemente posible, la persona que lo maneja en un determinado momento, debido, esencialmente al riesgo potencial que la utilización del automóvil entraña para la vida, salud e*



*integridad de las personas (STC 154/1994, fundamento jurídico 3º)" (8. oinarri juridikoa).*

Epai berean, betebehar hori noraino iristen zen argitu zuen Auzitegiak, eta hauxe gogorarazi zuen -espediente honetan axolazkoa denari buruz-: *"ya había tenido ocasión de advertir con anterioridad -en un supuesto en el que el titular del vehículo había señalado al posible infractor, sin que la Administración realizase comprobación o identificación de tipo alguno imponiéndole a aquél la sanción directamente- que lo que no se podía inferir (...) era que de la notificación de la denuncia y de la advertencia de ser posible exigir la multa al titular del vehículo, resultase una legitimación de la Autoridad de Tráfico para imponer directamente la sanción pecuniaria al titular del vehículo, **ni por ello la exoneraba de proseguir las pertinentes diligencias de prueba para conseguir la identificación del conductor"** (4. oinarri juridikoa).*

2. (...) zenbakiko zigor-prozedurari dagokion administrazio-espedientean jasota dagoenez, kexagileak adierazi zion udalari -prozedura hori hasi zuen salaketaren jakinarazpenean udalak horrexetarako eman zion epean, gainera-bere ibilgailua bi pertsonak erabili zutela salaketa-egunean, eta haien izen-abizenak eman zizkion, baita haien nortasun agiriaren zenbakiak eta helbide osoak ere. Aurrekarietan aipatu dugu hori.

Ez espediente horretan, ez geroago bideratutakoan ere -(...) zenbakiduna, gidaria ez identifikatzeagatik hasitakoa-, inon ez da ageri udala harremanetan jarri zenik kexagileak bere ibilgailuaren ustezko gidarizat identifikatu zituen bi pertsonekin, ezta beste jarduerarik burutu zuenik ere, salatutako ekintza gertatu zenean ibilgailua bi pertsona horietatik norik gidatzen zuen jakiteko. Hori ere adierazi dugu lehen.

Egintza horiek abiapuntutzat harturik, eta Konstituzio Auzitegiak laguntzeko betebeharra noraino iristen den argitu digunez (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak aurreikusi zuen betebehar hori, 72.3 artikuluan), erakunde honentzat eztaba daezina da kexagilearen jokaera ez dela izan arau horretan azaldutakoaren modukoa.

Ez dakigu udalak zergatik ulertu duen kexagileak egindako identifikazioa ez zettorrela bat legeak eskatutakoarekin. Udalak bidali dizkigun administrazio-espedienteek ez dute ezer argitzen gai horren gainean, izan ere, aurrekarietan adierazi dugunez, ebazpen-proposamenean (gai horren gaineko azalpena duen agiri bakarra), bakar-bakarrik baieztatzen da egiaztatuta geratu dela honako hau: *"que el responsable de la infracción es D. (...), en su calidad de titular del*



*vehículo, el cual debe conocer en todo momento la identidad de quien lo conduce, debido al riesgo potencial que la utilización de un automóvil entraña para la vida, salud e integridad de las personas".* Eta ez da beste inolako arrazoirik ematen beste hau jakin ahal izateko: zertan oinarrিতা adierazten den egiaztatua geratu dela (...) jaunak ez zuela bete bere ibilgailuaren gidaria identifikatzeko betebeharra; izan ere, administrazio-espeditentean, betebehari hori bete zuela idatzita dago, eta ez da ageri, ordea, egindako identifikazioa ez onartzea zuritu lezakeen frogarik.

Berraztertze-errekursoaren ebazpenak ere ez du ezer argitzen, ezta ere udalak -kexa ebazteko egin dizkiogun bi informazio-eskaerei erantzunez- eman dizkigun azalpenek ere.

Interesdunak, zenbait ikerketa egin arren, ez zuen jakiterik izan bere ibilgailua salatu zuten egunean autoa utzitako bi pertsonetatik nor ari zen gidatzen, eta hori justifikatzeko arrazoiak eman zituen. Alabaina, errekursoaren ebazpenean ulertzen da -erakunde honentzat ulergaitza bada ere- interesdunak azaldutako arrazoi horietatik direla hark udalaren eskaerari emandako erantzun bakarra; eta horretan oinarritzen da udalaren erabakia, nahiz eta -behin eta berriz adierazi dugunez- kexagileak, azalpen horien ondoren, bi pertsona haiek identifikatzeko oso datu zehatzak eman zituen.

Udalak bidali digun azken idazkian, bere erabakia zurrizteko asmoz, idazkian bertan partzialki transkribatzen duen epaia hartzen du oinarri. Epaia irakurri ondoren, ez gatoz bat, inolaz ere, udalaren iritziarekin, bada epai horretan aztertutako kasua eta kexa hau eragin duena oso desberdinak dira, gure ustez; epai horretan aztertutako kasuan -bertan azaltzen denez- identifikazio orokorra egin zen, eta kexa hau sortarazi duen kasuan ez da halakorik gertatu, askotan aipatu dugun bezala, interesdunak zehatz-mehatz identifikatu baitzituen ibilgailuaren gidari izan zitezkeen bi pertsonak.

Nolanahi ere, erakunde honen aburuz, interesdunak bi pertsona identifikatu izana, berez, ezin da ulertu martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 72.3 artikulua ezarritako betebeharra bete ez balitz bezala.

Bestalde, gogora ekarri behar dugu horixe dela, hain zuzen, hainbat auzitegi nagusik aldarrikatzen duten interpretazioa, uste baitute arau hori ez dela urratzen, baldin eta, orain gertatu den moduan, ibilgailuaren titularrak pertsona bat baino gehiago identifikatzen baditu, eta administrazioa ez bada identifikatutako pertsonekin harremanetan jartzen eta ez badu inolako ikerketarik egiten, baizik eta, aitzitik, -ulergaitza den arren- interesdunaren



adierazpena gertatu ez balitz bezala jokatzeko badu (besteak beste, Andaluziako Auzitegi Nagusiaren 2000ko ekainaren 21eko Epaia; Sevillakoarena -RJCA 2299-, Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiaren 1997ko martxoaren 25eko Epaia; Valladolidekoarena -RJCA 506-, Kantabriako Auzitegi Nagusiaren 1997ko azaroaren 11ko Epaia, -RJCA 2272-).

3. Azkenik, udalak ez ditu bete -gure iritziz- martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 83. artikuluan eta otsailaren 25ko 320/1994 Errege Dekretuaren 20.ean ezarritako aginduak, baldin eta, dirudien bezala, (...) zenbakiko prozeduran kexagileari ezarri zion zigorra derrigorrez betearazteko prozedura hasi bazuen, zigor hark administrazio-bidean artean irmotasunik ez zuelarik; izan ere, berariazko ebazpenaren zain zegoen zigorraren kontra jarritako berraztertze errekurtsoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **11/2003 GOMENDIOA, apirilaren 15ekoa, Bilboko udalari egina**

Baliorik gabe utz dezala kexagileari (...) zenbakiko zigor-prozeduran ezarritako zigorra. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 72.3 artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzeagatik ipini zion zigor hori.